

UDALAKO INGURUMEN ESKOLA

Zerbitzu Gutuna



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Udala auzoa z/g
20500 Arrasate



943 77 04 88



ieskola@arrasate.eus



Bulegoko ordutegia:
Astelehenetik egubakoitzera: 9:00-15:00



Ingurumen Eskola



Aurkezpena

Arrasatear agurgarri hori:

Atsegin handiz aurkezten dizut udal honetako Zerbitzuen Gutun hau. Zerbitzuen Gutunak informazioa emateko agiriak dira, eta horien bidez administrazio unitateek eta administrazio organoek eta beste erakunde batzuek herritarrak informatzen dituzte, kudeatzen dituzten zerbitzuei buruz eta horiek ematean hartutako kalitate konpromisoerik buruz.

Eskuetan duzun hau, hain zuzen ere, Udalako Ingurumen Eskolaren Zerbitzu Gutuna da, eta helburu du zure eskubideak benetan erabili ditzazun bermatzea. Kalitatearen kultura sustatu nahi du eta udal kudeatzaileen erantzukizuna agerian jartzen du herritarren aurrean, informazioa eta zerbitzuak behar den moduan emateko orduan.

Hemen, informazio erabilgarria izateaz gain (ordutegiak, telefonoa, helbidea, eta abar), ematen ditugun zerbitzu nagusien zerrenda xehatua ere aurkituko duzu. Horrez gain, zerbitzu honek hartzen dituen kalitateko konpromisoak eta ezarrita dauden jarraipen eta jardueren adierazleak ere ikusiko dituzu.

Hortaz, nire asmoa da gutun honek balio dezala aurrez pentsaturik dugun helburua betetzeko, hau da, udal honek ematen dituen zerbitzu publikoen kalitatea hobetzeko.

Adeitasunez,

Izp.: ALKATEA
Arrasate, 2018ko iraila

Ematen ditugun zerbitzuak



INFORMAZIOA



IKASLEEI ZUZENDUTAKOAK:

ESKOLAKO AGENDA 21 PROIEKTUA:

- Saioak eskoletan
- Ibilaldiak Arrasaten
- Egonaldiak Ingurumen Eskolan
- Foroak ikastetxeen artean
- Parte hartu udaleko osoko bilkuran

HONDAKINEN KANPAINA DEBAGOIENKO MANKOMUNITATEAREKIN ELKARLANEAN:

- Saioak eskualdeko eskoletan LHko 3. zikloan eta DBHko 1. zikloan
- Egonaldiak Ingurumen Eskolan
- Horma-irudi eta lelo lehiaketa

EGONALDIAK UDALAKO INGURUMEN ESKOLAN:

- Gai asko lantzen dugu: basoko bioaniztasuna, ura, hondakinak, artadia, energia, kontsumoa, erreka ...
- Egun bateko egonaldiak edo gehiagokoak

HAINBAT EKINTZA ANTOLATZEA INGURUMEN SAILAREKIN ETA BESTE UDAL SAILEKIN ELKARLANEAN:

- Eskolara oinez, zuhaitz eguna, haurren kontseilua ...

BESTE HERRITARREI ZUZENDUTAKOAK:

- Ikastetxeak ez diren talde antolatuei aukera ematea Udalako Ingurumen Eskola erabiltzeko
- Maileguan uztea Udalako Ingurumen Eskolaren material didaktikoa edo bestelako materialak



Xedea

Udalako Ingurumen Eskola Arrasateko Udalak kudeatzen du, eta 1991. urteaz geroztik dihardu lanean helburu nagusi batekin: etorkizun justu, osasuntsu eta jasangarri bat eraikitzen laguntzea.

Horretarako, ingurumena ezagutzen laguntzen diegu Arrasateko eta beste herri batzuetako ikasleei, naturarekiko jarrera positiboak bultzatzen eta konponbideak erakusten ingurumen arazoez jabetzeko. Gure eskola dago Udala auzoan, Udalatx mendiaren magalean, naturaz inguratuta, eta, aldi berean, Arrasatetik oso gertu.

Ardatz ditugu ekimen nagusi hauek:

- › Eskolako Agenda 21
- › Ikasle taldeekin egonaldiak
- › Hondakinen kanpaina

Beti ere, ekintza askotan hartzen dugu parte ingurumen programak antolatu, diseinatu eta eskaintzen.

Kalitate konpromisoak



KONPROMISOA

ZELAN NEURTZEN DUGUN

1	Gure zerbitzuak erabiltzeko, herriko ikastetxeek lehentasuna izango dute.	Udalako Ingurumen Eskolako zerbitzuak eskatu eta erabili barik geratu diren herriko ikastetxeen ehunekoak.
2	Konpromisoa hartzen dugu ikasleen ahotsa entzuteko eta haien iritzia jasotzeko.	Kontuan hartzen dugu zenbat iritzi jaso diren saioak amaitzerakoan eta zenbat idatzi diren Bisitita Liburuan.
3	Ikastetxeekin aurretiaz adostutako saio guztiak emango ditugu, nahiz eta finkatutako egunetan aldaketak eman.	Ikasturtean adostutako eta egingadako saioen kopurua alderatuta.
4	Kexei eta iradokizunei erantzutea gehienez 10 egun balioduneko epean.	Epe barruan erantzuten diren kexen eta iradokizunen ehunekoak.
5	Udalako Ingurumen Eskolako langileok modu egokian egingo dugu lan, eta erabiltzaileekin tratu atsegina erakutsiko dugu.	Galdeketa erabiltzaileek eskolako langileen lanari buruz zer iritzi ematen duten, eta kexarik ez aurkeztea horri buruz.



KONPROMISOA

ZELAN NEURTZEN DUGUN

6

Udalako Ingurumen Eskolako egonaldiak izango dira ikasleen mailari eta adinari egokituak, baita erabiliko den materiala ere.

Gai honi buruz kexarik ez jasotzea, eta galdeketa erabiltzaileek zer gogobetetze maila erakusten duten.

7

Eskolako Agenda 21eko hezkuntza programa diseinatu eta garatuko dugu, betiere ikastetxeek urtero aukeratzen duten gaiarekin lotuta.

Ikasturtean zenbat saio egingen ditugun Eskolako Agenda 21ean.

Modu bat konpromisoak

BETETZEN DIRELA JAKINARAZTEKO



Udalaren webgunean urtero argitaratuko dugu konpromisoak zer neurritan edo zelan betetzen diren; eta, konpromisoren bat ez bada betetzen, zergatia aztertuko da eta neurriak hartuko dira, horrelakorik berriro ez gertatzeko.

Erabiltzaileen

ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK



Eskubideak:

- › Udalako Ingurumen Eskolako instalazioak eta materialak erabiltzea
- › Parte hartzea egonaldia eta ekintzak diseinatzeko eta planifikatzeko
- › Informazioa
- › Arrasateko eskolek tarifa bereziak dituzte

Betebeharrak:

- › Eskola barruko arauak betetzea
- › Errespetuz tratatzea Udala auzoa eta haren inguruak (ibilbideetan, eskola kanpoan eta abar), baita auzotarrak ere.
- › Udalako Ingurumen Eskolako irakasleekin elkarlanean aritzea eta instalazioak eta materiala modu egokian erabiltzea
- › Parte hartze aktiboa izatea lantzen den proiektuan



Sagiri Elkartea

Aplikatu daitekeen **LEGEZKO ARAUDIA**



Orokorrak:

- 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra.
- Eskolako Agenda 21 programak garatzeko EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei diru-laguntzak. 2018-2019ko deialdia.



Udal tasak:

- Udalaren webgunean:



Zelan parte hartu?

ZELAN LAGUNDU GURI HOBETZEN?



Abisuak, kexak eta iradokizunak.

Helarazi guri zure kexak eta iradokizunak ematen ditugun zerbitzuei buruz.

1 Gurekin zuzenean:



Aurrez aurre: Udala auzoa z/g
20500 Arrasate



Eskura utziko dugun Bisita
Liburuan idatzita



Telefonoz: 943 77 04 88



Posta elektronikoa erabilia:
ieskola@arrasate.eus

2 BAZen:



BAZera etorrita edo gutun bat bidalita:
Arano eta Garcia maisu-maistrak 8
20500 Arrasate



943 25 20 00



baz@arrasate.eus

3 Udalaren webgunea erabilia:



4 Whatsapp/Telegram zerbitzuak erabilia:



688 73 24 63

Kontuan izango ditugu kexa eta iradokizun guztiak, eta erantzungo ditugu 10 egun balioduneko epean.



ZELAN PARTE HARTU?


Zuen partaidetza ezinbestekoa da gure zerbitzuen kalitatea hobetzeko, eta, horregatik, gonbidatzen zaituztegu parte hartzera saioa amaitu eta gero bidaliko dizuegun galdeketan.



GUTUNAREN IRAUNALDIA

Zerbitzu Gutun hau berrikusiko da urte bi barru. Hala ere, epe hori amaitu aurretik aldaketa nabarmenen bat egonez gero zerbitzuetan, zerbitzuen kudeaketan, edota erabiltzaileen premietan, Zerbitzu Gutuna aztertu eta eguneratu egingo da.

UDALAKO INGURUMEN ESKOLA kokapena



Helbidea:
Udala auzoa z/g
20500 Arrasate



Bulegoko ordutegia: 9:00-15:00



943 77 04 88



ieskola@arrasate.eus



43.079169, -2.516968